

MAITE BARNETCHE

TELEBISTA EMANKIZUNEN BILDUMA
"EUSKAL HERRIA ORAI ETA GERO" [1971 - 1986]



Argazkia: © Daniel Velez

maite.barnetche.mintzoak.eus



MAITE

BARNETCHE

TELEBISTA EMANKIZUNEN BILDUMA

2

MEMORIAREN ZAI NTZEKO ELKARLANA

EKE eta INA-ren arteko partaidetza.

3

EUSKAL TELEBISTAREN AMA

Maite Barnetche-ren biografia bat.

7

EMANKIZUNEN BILDUMA

Bildumaren ezaugarri nagusiak.

8

KONTSULTAGUNEA

Bilduma Euskal kultur erakundeko egoitzan kontsultagarri.

MEMORIAREN ZAINTEKO ELKARLANA

Euskal kultur erakundeak eta INA - Frantziako entzun-ikusen erakundeak (Tolosako adarra - INA Délégation Pyrénées) lan amankomuna abiatu dute 2017an Maite Barnetche (1941-1986) kazetariak 1971 eta 1985 artean zuzendu "Euskal Herria Orai eta Gero" telebista emankizunen baloratzeko.

1971ko urriaren 4an, FR3 katean, egundaino aditu ez zen hizkuntza entzuten da telebistan: euskara. *Euskal Herria orai eta gero* emankizuna sortu da, Maite Barnetche kazetariak zuzendurik. Hogei urteren istorioa hor hasten dela, nehork ez daki, ez eta 300 emanaldietatik lehen atala baizik ez dela hedatzen egun hartan.

Hilabeteen bi aldiz Euskal Herriko gai guziak jorratuko ditu emankizunak: laborantza, bertsularitza, arrantza, ekonomia, modernitatea, familia, ikastolak, artea, gazteria, antzerkigintza, lizeo-kolegioak, euskal diaspora... Herriz herri, xokoz xoko, Maite Barnetche Euskal Herriko bazter guzietan kurrituko da, egiazko antropologo bat bailitzan. Haren lan eta jendetasun paregabea islatuko dira 300 emankizunetan.

Egiazko altxorrak daude INA-ren jabegoan diren dokumentu horietan.

EKE eta INA-ren arteko partaidetza-hitzarmenaren karietara emankizun bakoitzaren mamia laburbiltzen duen fitxa egina izan da, aldi guziz testuinguru historikoa eta etnologikoa nabarmenduz. Euskarazko laburpen bat idatzia izan da ere. Tratamendu hori, INA-ko dokumentazio arau zehatzetan oinarritu delarik. Kattalin Totorika-k eta Maider Bedaxagar-ek eraman dute lan xehe hori.

Orain, emankizun guziak Euskal kultur erakundeko Ahozko ondare kontsultagunean ikusten ahal dira, Uztaritzen, baita ere Frantzia osoko "Inathèques" izeneko bilguneetan (Pauen, Bordelen, Tolosan...). Hemendik aitzina, funts hori molde batez edo bestez ahalik eta herritar gehienek eskura ezarria izan dadin, beste balorapen bideak aztertuko dira ere (interneten edota herriz herri antolatu animazio desberdinen bitartez, adibidez).



EUSKAL TELEBISTAREN AMA

MAITE BARNETCHE: BIOGRAFIA LABURRA

Hautzaroa Bidarrain

Maite Barnetche, Aña Castorene eta Manez Amestoy bidarraitarren alaba da. 1941ean sortu zen Bidarrain, Arlanetxeberria etxean. Bi ahizpetarik zaharrena, Maitek haur denbora guzia familiarekin iragan zuen Bidarrain, bakantza garai batzuk berriz Bidarten, amaren ahizpak zuen itsas bazterreko etxean. Izan ere Lapurdi kostaldeko xoko hori du hautatuko berantago, bere etxearen eraikitzeko. Zurgin gisa, erretretara joan aitzin, Manez Amestoyek egin zuen azken etxea bere alabarena izan zen, zur guzia eskainirik. Usu bezala, familiako kide ainitzek parte hartu zuten honen eraikuntzan. Itsasotik hurbil, toki xoragarri batean eraikia da etxea, eta 2006an, kazetariaren ohorez, etxe ondoan den itzulgunek Maite Barnetche izena hartu zuen.

Horrela, aita, Manez Ameztói, ofizialea zen, zurgina. Ama berriz, SNCFko langile: Bidarraiko trenbidearen ondoan bizi zirenez, egun guziz treinen pasazteko, edo laborarien orga eta kabalen kurriarazteko atezaintza lana egiten zuen.

Sei urtetan, 1947an, Maite Bidarraiko herriko eskolara doa. Hortik landa, hamabi bat urte inguru dituela, herriko errientsa haur gaztearen dohainetaz ohartzen da eta eskolan aitzina aritzea aholkatzen dio. Alabaina, gurasoek ez dute begi onez ikusten alabak kolegioko bidea har dezan. Familiaren irabaziak ahulegiak direla eta, Maitek ez du sekulan bigarren mailako ikastetxerako bidea hartuko.

Eskolako xantza idokirik ere, Maitek kulturarako maitasuna bere baitan haziko du beti, hala nola liburuei buruz duen tirria asez. Gurasoei, alta, hainbatetan entzuten die liburuak orozbat bazter utz ditzan, begiak fundituko dituela.

Behin, Bidarraiko Arbeletxe erretoreak harmoniuma elizan jotzea proposatzen dio. Maitek proposamena onartzen du. Orduan, erretoreak gurasoei galdegiten die alabaren uzteko prest direnez. Errientsaren proposamenari ez baina apezaren galdeari bai: Maiteren aita eta ama Maite Uztaritzeko serorategira astean bi aldiz musikaren ikastera joan dadin onartzen dute.

Musika kurtsoen hartzen ari dela, erne eta gogotsu, neska gaztea ohartzen da idazkaritza kurtsoak ematen direla ikastetxean. Maitek gurasoei aipatzen die klaseak hartu nahi lituzkeela. Urte bat edo bi barne, neska gazteak musika eta idazkaritza kurtsoak segituko ditu Uztaritzen, eta ziklo bukaeran, sténo-dactylo saileko diploma eskuratuko. Bere bidean usu agertuko den bezala, biziak eskaini aukerak eskutan hartzen ditu Bidarraitarsak, kartsuki.

Lehen ofizioa Breguet enpresan

Breguet Aviation 1911n sortu frantses hegazkin enpresa bat da, hegazkin eta helikoptero eraikuntzan berezitua. Gaur egun, Dassault hegazkin enpresaren barne da, 1967an erosi baitzizkion akzioak azken honek, eta 1971n bi enpresek bat egin baitzuten.

Garaian, enpresa horrek etorkizun fidagarri bat eskaintzen zien bere langileei. Izan ere, Amestoy familiaren Bidarraiko auzo bat ari zen Miarritzeko Breguet enpresan lanean. Haren laguntzarekin, Maitek bere burua presentatu zuen Miarritzeko enpresan. Aski laster, idazkari postu bat lortu zuen han. Bidarraitik Miarritzera lekuz aldatzen da beraz neska gaztea, eta enpresako langile gisa, Angeluko apartamendu batean bizitzen.

Orduan, Yves Brunaud (1920-1962) pilotuaren idazkari jartzen dute: lana zinez interesgarria du eta bere ofizioan laketzen da. Alta, 1962ko apirilaren 19an, hegazkin prototipo baten entsegu batean, Brunaud pilotua hegazkinez lehertzen da, bere eskupaia guziarekin. Talde guzia istripuan hiltzen da.

Maite gaztea, istripuak zinez inarrosirik da. Buruzagi berri bat jartzen diote, baina ez da sekulan lehenekoarekin bezain ongi akomeatuko, are gutiago adiskidetuko.

Radio Côte Basque irratia

Radio Côte Basque 1961ean sortzen da, Euskal Herriko irrati gisa, edo hobeki erran frantses kate ofizialaren tokiko adar gisa.

Frantses irrati honek, urtean hilabete bat eta erdiz hedatzen ditu uhinak Euskal Herrian. Bakantzetara heldu diren udatarrentzat, hots uztail-agorrrileko turistentzat pentsatua da. Horrez gain, Miarritzeko kasinoko azken estaian kokatua da eta bertan, ostegun guziz, 08:30etatik 09:00etara eta igandetan 09:00etatik 11:00etara zabaltzen ditu emankizunak, Parisen manupean. Garaian, Euskal Herriko biztanleen irrati bakarretarik da.

Egun batez irratiak idazkari baten lan-deialdia hedatzen du. Maitek, ofizioz idazkari, bere burua eskaintzen du. Breguet enpresako aukera profesional paregabe baten gerizatik joatekotan da. Izan ere, erabaki honek ama zinez griñatsu uzten du. Bere bizia eskutan hartzen du, alta, emazte gazteak. Ordu hortan, Maite Barnetche bere biziaren istorioaren marrazten ari da: 1963an Radio Côte Basque irratian sartzen da.

Izan ere, lantalde ttipia izanik, idazkaritza lanaz gain, Maitek emankizun batzuk animatu behar ditu frantsesez. Irratiak bere kazetariak baldin baditu berri sailaren egiteko, Maitek magazina gisako emanaldiak animatu behar ditu. Emankizunetako gaia aski librea denaz gain, Maitek gazteei zuzendutako emanaldi bat sortzen du: astearte guziz, Euskal Herrian barna diren gazteak elkarrizketatzen ditu.

Garai berdintsuan, bizi pribatuari doakionez, Guy Barnetcheekin ezkontzen da, Izpuran, eta alaba bat altxatzen dute: Chantal.

1966-1967 artean Radio Côte Basque Miarritzetik Baionara lekuz aldatzen da, eta bere irratsaioak egonkortzen dira: irratiak, udako programazioaz gain, urte osoan emititzen du.

Memento berean, Piarres Larzabal, Roger Idiart, edota Pantxoa Etxezaharreta bezalako euskaltzaleak, frantses irratiaren kontra asaldatzen dira eta euskarak egun guziz 5 minutuko artea ukan dezan erdiesten dute. Puntu horretan, irratiako buruak Maiteri galdegiten dio euskaraz mintzatzeko ados litzatekeenez. Lehen aldikoz, frantses irrati batetako uhinetan, Maite Barnetche euskarazko hitzak hedatzen ditu.

Euskarazko telebista baten sorrera

Garai berdinean, Georges Pompidou (1911-1974) presidentearen lehendakaritzapean, Frantziako irrati eta telebistak liberalizazio ikaragarri baten ezagutzen ari dira. Horra arte, irrati eta telebistak estatuaren kontrolpean baziren, 1969ko ekainean, Jacques Chaban-Delmas (1915-2000) lehen ministroak "Ministère de l'Information" edo Informazioaren Ministerioa desagiten du. Frantses ministerio hau, 1938an sortua zen, eta Vichy-ren erregimenpean erabilia, "Ministère de la Propagande" gisa. Ondotik, 1960 urteetan bizirik segitu zuen, telebista kateen kontrolatzeko helburu nagusiarekin.

Bordeaux-Aquitaine estazioak lehen telebista emanaldiak 1962ko urtarrilaren 22an proposatu zituen, Akitanian. Bordeleko estazio honek, programa nazionalarekiko deslotzeak egin, eta tokiko programazio baten eskaintzen hasi zen. Emeki-emeki, eguneroko berri-sailen kultura sorrarazi zuen Akitanian, eta momentu berean, FR3 Aquitaine izena hartu.

Ministerioaren desagituraketatik landa, Chaban Delmas-ek ikus-entzunezko hedabideen alorra modernizatzen du. Ildo beretik, hurbileko politika baten defendatzaile, lehen ministroak hizkuntza gutxituetako telesaioen sorrera iragartzen du 1969-1970 urteetan.

Ez bat, ez bi, Euskal Herrian, Michel Inchauspé diputatua (1925-2011) aukera paregabeaz jabetzen da. Izan ere, legebiltzarrean, euskarazko telebista emankizun baten sortzea galdegiten du.

FR3 kateak ezagutuko duen lehen hizkuntza gutxitua euskara da. Kateak Jean Haritschelhar arduradun moral izendatzen du. Ordu haietan, Bordeleko Unibertsitateko euskara katedra, edo Chaire Universitaire kargua, zuen Baigorriarrak. Hari doakio beraz emankizunen edukiaren garbitasuna segurtatzea. Horrez gain, 1970eko aurre-txosten batean, euskarazko emankizunak oroz gaineratik kirolaz, euskal pilotaz eta euskal antzerkigintzaz ariko direla iragarria da. Euskarazko emankizunak onartuak dira, euskal gaiak gutiago.

Maite Barnetchen lehen emankizuna

Telesail berriaren sortzearekin, lantalde berri bat muntatu behar da. Lan taldean, soinu-hartzailea, argi-egilea eta kameraduna behar dira, bai eta, bistan dena, presentatzailea. Hiru teknikariak, bai eta muntatzailea, Bordele eta Baiona aldean atzematen dira: Gilbert Reculosa, Pierre Amorena, Alain Duprat eta Daniel Giraud, dira besteak beste emankizunaren historian parte hartuko dutenak.

Kazetalarari postuarentzat aldiz FR3 Aquitaine-ek lan deialdia zabaltzen du. Maite Barnetche dioenez, ikaragarriko arrakasta bildu zuen orduan lanpostu horrek: Frantziako hainbat tokitatik hurbildu nahi zen jendea Euskal Herrira, eta FR3 Aquitaine estazioko kideen artean ere, nagusiei begi keinuka hasi zitzaizkien zenbaitzu.

Hala bada hala, Bordeleko nagusiak, Maite Barnetche izendatzen du FR3ko euskarazko emankizunen presentatzaile. Maite Barnetche pertsonaia sortzen da, orduan.

Gisa horrez, 1971ko urriaren 4an, FR3 katean, egundaino aditu ez zen hizkuntza entzuten da telebistan: euskara. Euskal Herria orai eta gero emankizuna sortzen da. Hogei urteren istorioa hor hasten dela, nehork ez daki, ez eta 300 emanaldietatik lehen atala baizik ez dela hedatzen egun hartan.

Lehen erreportaia, parte handi batean, Mattin bertsolariaren inguruan eraikia da. Mattinen irudien gainean irekitzen da emankizuna: orga bati besainkaturik, belar mozte sasoi batean, baserri zelai eta belardi panorama batean, xutik da hor, Mattin, kameraren parean. Eta bertso bat botatzen du:

**Telebistan ere hasi zaizkigu
Eskuaraz emankizunak
Lan hortarako etorri zaizkit
Gizon batzu jakintsunak
Izate hortaz poztu zaitezte
Adiskide ta lagunak
Bihotz erditik agurtzen ditut
Begira dauden eskualdunak!**

Bere buruaz irriz, berak egiten duen momentu historikoaz oharturik, Mattinek telebistaren euskalduntzea estreinatzen du.

Hilabetean bi aldiz Euskal Herriko gai guziak jorratuko ditu emankizunak: laborantza, bertsolaritza, arrantza, ekonomia, modernitatea, familia, ikastolak, artea, gazteria, antzerkigintza, lizeo-kolegioak, euskal diaspora... Herriz-herri, xokoz-xoko, Maite Barnetche Euskal Herriko bazter guzietan kurrituko da, egiatzko antropologo bat bailitzan. Haren lan eta jendetasun paregabea islatuko dira 300 emankizunetan.

1986an, larriki eritzen da emazte gaztea. Hortik hilabete zenbaitzutara bizia galtzen du, Bidarten.

Emankizunek alta segituko dute, eta gutara heldu euskarazko telebista eta irrati emanaldi guziak hazituko eta liliztatuko ditu.

Haren lan paregabeak oihartzun guti du egun, baina hainbeste aberastu dituen irrati eta telebistak egun batez, menturaz, ohoratuko dute, haien aldi.

Maidar BEDAXAGAR

BIBLIOGRAFIA LABURRA

Liburu eta artikuluak:

ARBELBIDE, Xipri. Maite Barnetxe (1941-1986). Bidegileak. Gasteiz : Eusko Jaurlaritza, 2002
Hemen ikusgai : https://files.eke.eus/pdf/maite_barnetxe.pdf

CHEVAL, Jean-Jacques. Médias audiovisuels français et langues régionales minorisées. Contexte national et exemples Aquitains. Langues d'Aquitaine, dynamiques institutionnelles et patrimoine linguistique. Bordeaux : Editions de la Maison des Sciences de l'Homme d'Aquitaine, 2005
Hemen ikusgai :
http://www.grer.fr/upload/articles_en_ligne/Les_medias_audiovisuels_francais_et__langues_regionales_minorisees.pdf

GASTEIZ, Xabier. Baionako euskal irrati-telebistak. Jakin, 10. Zenbakia, 61-64

MARTINEZ, Josu. Hurbilketa euskarazko lehen telebista saioaren historiara. I. Ikergazte: Nazioarteko ikerketa euskaraz, 2015
Hemen ikusgai : <https://www.inguma.eus/produkzioa/ikusi/ar-hurbilketa-euskarazko-lehen-telebista-saioen-historiara>

Elkarriketak:

ARBELBIDE, Xipri, Maite Barnetche-ri 1986an egin elkarriketa (60 min)

BEDAXAGAR, Maider , Chantal Barnetche-ri 2018ko otsailaren 15ean egin elkarriketa

Irrati emankizunak:

FRANCE BLEU PAYS BASQUE. Le bel âge des radios. "La vie en bleu", 2018ko otsailaren 13a

Beste:

INSTITUT NATIONAL DE L'AUDIOVISUEL (INA):

- "Euskal Herria Orai eta Gero" emankizuna
Maite Barnetche, Marie Bidart, Odile Cihigoyenette eta Xabier Soubelet-rekin

- "Gurekin euskaraz" emankizuna (1983-1986)
Antoine Bilbao eta Odile Cihigoyenette-rekin

- "Hemendik" emankizuna (1991)
Odile Cazeaux eta Xabier Soubelet-rekin

- "Leihua" emankizuna (1992)
René Garat, Allande Boutin eta Marie-Pierre Erguy-rekin

EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA

- www.maite.barnetche.mintzoak.eus

BILDUMAREN EZAUGARRIAK

"EUSKAL HERRIA ORAI ETA GERO" (1971-1986)



300

telebista
emankizun
(haietarik 75
frantsesezko
azpiztituluekin)



80

oren
grabaketa



73

herri
(Ipar Euskal Herriko
herriak)



350

lekuko baino
gehiago
identifikatuak
(%87 gizonak,
%13 emazteak)



Gai desberdinak

Laborantza (abere-hazkuntza, artzaintza...),
arrantza (Donibane Lohizune, Hendaia...),
ekonomia (autobidea, Baionako portua,
turismoa, informatika, herrien garapena,
kooperatibak...), **jakinduriak** (ofizioak...) **gizarte-
gaiak** (familia, lana, sinesteak...), **kirolak &
aisialdiak** (pilota, errugbia, zango-baloia, euskal
jokoak, mendi-ibilaldiak...), **kantua eta musika**,
antzerkia (pastorala, antzerki garaikidea...),
dantza, arte plastikoak (margolaritza),
ohiturak (ihizia, bestak...), **ondare eraikia, bizi-
kondairak, euskara** (aldarrikapenak,
erakaskuntza, ikerketa...)



Lekuko ezagunak

Louis Dassance, Piarres Lafitte, Etxahun-Iruri,
Txillardegi, Telesforo Monzon, Roger Idiart,
Piarres Larzabal, Piarres Narbaitz, Jean
Haritschelhar, Piarres Charriton, Jean-Louis
Davant, Junes Casenave, Xalbador, Mattin,
Xanpun, Eztitxu, Iratzeder, Imanol, Etxegaray
Kardinala, Leon Dongaitz, Panpi Laduche, Daniel
Landart, Txomin Heguy, Mixel Berhocoirigoin,
Maite Idirin, Jojo Bordagarai, Koldo Amestoy,
Erramun Martikorena, Mixel Etcheverry, Peio
Dospital, Phillipe Oyhamburu, Koldo Zabala... eta
beste anitz.

...eta ezezagunak

...

300 EMANKIZUNAK EUSKAL KULTUR ERAKUNDEAN IKUSGAI

Ahozko ondarearekin zerikusia duten hainbat ikus-entzunezko dokumentu daude kontsultagarri Euskal kultur erakundeetan, dagozkien jabe desberdinen baimenarekin beti. Horien artean, Maite Barnetche-ren bilduma.

Non dago kontsultagunea?

EKE-ko egoitzan kokatua da, Uztaritzeko Lota Jauregiko 1.estaian.

Norentzat da?

Kontsultagunea deneri irekia da (ikerlariak, ikasleak, artistak, kultur eragileak, kulturzaleak...) eta dohainik eskaintzen den zerbitzua da.

Noiz etor daiteke?

Ezinbestekoa da hitzordua hartzea aitzinetik. Hitzordua hartzen da 05 59 93 38 70 telefono zenbakira deituz, edo kontsulta@eke.eus emailera mezu bat bidaliz. Gunea ostirale goizez idekia da, 8:30tatik 12:30ak arte.

Nola prestatu bisita?

Bilaketak egiten ahal dira interneten *maite.barnetche.mintzoak.eus* plataforman jakiteko zer kontsulta daitekeen. Hor dago emana bildumaren katalogo orokorra. Gero, erran bezala, hitzordua bat hartu behar da, ikerketa-xedea azalduz.



Nola iragaiten da bisita?

Kontsulta egiten da beti EKE-ko langile baten ardurapean. Hor dago bilaketan errenteko eta xehetasunen emateko.

Informazio-fitxa bat eta barne-araudia izenpetu beharko ditu erabiltzaile bakoitzak.

Ordenagailu bat emana da bisitariaren zerbitzuko. Hortik begiratzen ahalko dira emankizunak.

Bildumaren katalogo osoa irakurtzen ahal da, bai paperez bai formatu elektronikoan.

Azpimarratzekoa da bisitarien laguntza eskertuko dela emankizunen inguruko hainbat informazio (adibidez pertsona ezezagunak identifikatzeko) biltzekoak baitira oraino. Denen artean osa dezagun gure memorio kolektiboaren ezagutza!

FRANTZIAN GAINDI ERE

Frantziako "Inathèques" izeneko bilguneetan ere (Pauen, Bordelen, Tolosan...) ikusgai dago bilduma.

Gehiago jakin: <http://inatheque.ina.fr>

maite.barnetche.mintzoak.eus



**EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA
LOTA JAUREGIA
64480 UZTARITZE
TEL. 0 (033) 5 59 93 25 25
WWW.EKE.EUS - INFO@EKE.EUS**